

EHUko Arkitektura GETn

Matrikula aldatzeko irizpideak

Matrikulazio barne araudia

((2024/11/18ko Eskola Batzarrean onartua, eta 2026/06/22ko Zuzendaritzaren ebazpen bidez aldatua).

Erreferentziazko arautzat Gradu Hezkuntzako Kudeaketa Akademikoko Araudia eta aplikatu daitezkeen beste Arautegi batzuk hartzen dira (EHU), besteak beste izen-emate publikoa eta prezioak arautzen dituen IV. kapitulua.

1. Ikasleak taldeetan banatzeko irizpideak (29. eta 30. art.)

- Ikasle **berriak lehenengo ikasturtean** (1. fasea):

Ikasleek **hizkuntza-lerro bat aukeratu behar dute, euskara edo gaztelania**. Ikasleek irakasgai guztiak hizkuntza berean egingo dituzte. Taldeen esleipena ausaz egingo da.

- **Aurretik matrikulatutako** ikasleak, taldea hurrengo irizpideekin aukeratu ahalko dute:

Derrigorrezko irakasgaietan (euskara eta gaztelania), ikasleek irakasgai guztietarako hizkuntza-lerro bakar bat aukeratuko dute. Taldeen esleipena ausaz egingo da.

Ingelesez eskaintzen diren derrigorrezko irakasgaietan, matrikula egiteko unean irekita dauden taldeak aukeratu ahal izango dituzte soilik (ikasturteko gainerako irakasgaietan aukeratutako hizkuntza edozein dela ere).

Hautazko irakasgaietan, ikasleek irakasgaiak eskaintzen diren edozein hizkuntzatan (euskara, gaztelania edota inglesa) aukeratuko dituzte, beti ere taldeak matrikula egiteko unean irekiak badaude.

2. Matrikula aldatzeko irizpideak

Matrikula aldaketak, irakasgaian edota taldean plaza librerik badago eta eskatzaileak iraunkortasun-araubidea betetzen badu emango dira soilik. Eskaerak irailaren 30erako ebatziko dira.

Ikasle eskatzaileek beren GAUR aplikazioa kontsultatu behar dute ebazpena ezagutzeko. **Aldaketaren ebazpena bide ofizialetatik egin den arte ikasleak hasiera batean matrikula gauzatu duen irakasgai eta taldean parte hartzen jarraitu beharko du.**

Aldaketak **hizkuntza-lerro bereko taldeen artean** eskatu daitezke (ikasturte bereko irakasgaiek hizkuntza berdinean talde bat baino gehiago dituztenean, 01A eta 01B taldeen artekoak, adibidez, aldaketa beti ere taldeko irakasgai guztietan egingo delarik), baita **derrigorrezko irakasgaietako ingeleseko taldeetara**, edota **hautazko irakasgaian** artean.

Ez dira kurtso berdinean hizkuntzen arteko irakasgai bakarretako aldaketak (euskaratik gaztelaniara edota gaztelaniatik euskarara) onartuko. Hizkuntz-lerro osoaren aldaketa eskaerak kontuan hartuko dira soilik.

Matrikula aldaketa egiteko eskaerak ikasturtearen lehen astean egingo dira. **Ez dira onartuko epez kanpo eginiko eskaerarik.**

Salbuespen modura, justifikatutako arrazoiengatik, matrikula aldatzeko eskaerak bigarren lauhilekoko lehen astean egin ahal izango dira. Eskaera hauek motibatuta eta dokumentatuta egon beharko dira. Honako hauek izango dira arrazoi justifikatuak: **osasun-arrazoiak** (mediku-ziurtagiri zigilatua aurkeztuta), **lana** (lan kontratua aurkeztuta), **kirol federatua** (frogagiria aurkeztuta), **irakaslearen onespena** (idatzizko onespena aurkeztuta) edota ebaluazio objektibokoak diren beste egoera batzuk.

Ikasleen Idazkaritzak prestatu eta argitaratuko dituen inprimakien bidez soilik egingo dira eskaerak.

3. Matrikula ezabatze edo gehitzeak

Ikasleek banakako irakasgaiak kentzea edo gehitzea eska dezakete. Irakasgaiak gehitu ahal izango dira, betiere tokia badago eta eskatzaileak iraunkortasun araudia betetzen badu.